

Tokiko ekonomiaren testuingurua irudikatzen



Ula Iruretagoiena *

Gako-hitzak:
tokiko ekonomia,
baliabide naturalak,
deshazkundera

Hazkunderaren mugak eta zientzia eta teknologiarekiko fedea

Ekonomia modernoaren ahalmenaz gogoeta egin dezagun. Egun ez da hazkunde ekonomikoaren mugen gaineko kudeaketarik. Merkatuaren kompetentziak dena justifikatzen du, kapitalaren akumulazioak ez duela mugarik ematen du, ez eta horren ondorioek ere. Ongizatearen izenean, gurpil zoroan erori gara; hazteko beharrea gaude une oro, eta hau, amaierarik gabeko ilusioa da. Materialtasunaren ongizateaz ari gara noski (gizartearen eritasuna garapenkeria dela esaten duenik ere bada eta psikologoaren estatistikatik begiratuta ongizate horren arrakasta kolokan jartzerik bada) (1). Gizarteak kontsumoan oinarritzen du poztasuna eta naturak pairatzen dituen ondorioak kostu ekonomikorik ez duenez, dohainik suertatzen zaizkigu. Merkatuaren inperialismoak *gehiagoaren* eredu mugitzen da eta irabazien adierazle ekonomikoak besterik ez du aintzat hartzen; balio ekonomikorik ez duena mespretxatu egiten da, gizatasunik gabeko zapalgailuan gabela baieztza daiteke beraz.

Baina produkzio eta kontsumoaren hazkundeak mugarik ezagutzen ez duen bitartean, planetaren hainbat baliabide natural finituak dira, hau da, hainbat baliabide agortu egingo dira (ez dira iraunkorrak) eta horrek esan nahi du, iraungitze-data dutela. Horra hor ekonomia sistemaren hutsa eta ahultasuna.

Ezjakintasunean eta egunerokotasunean murgildurik gabela, krisialdi ekonomikoaren bidez (energetikoaren eraginez), sistemaren ahultasunaren lehen abisua iritsi zaigu. Baina gizartearen egoeraren larritasunaz jabetu al da?

Klima aldaketaren ondorioez eta petrolioaren agortzeaz hainbeste (edo hain arinki) jardun da, ezen haren egiaz, gertutasunaz edo larritasunaz galdetzen baitiogu geure buruari. Behar bada, indibidualtasunaren balioetan eraiki dugun gizartearen, ez omen du etorkizunak baliorik, gure erosotasunean eragingo ez badu bederen. Orain arte zientzia eta teknologiak gure bizitzakalitateari eustea lortu duenez eta garai batean pentsaezina zen kalitate mailara heldu garenez, harekiko sinesmen itsua dugu. Baina zentzugabetasun istorio honi heldu diezaiozun: zientziak gizakia naturaren garaile egiteko gaitasuna izango balu ere, ez al da unea iritsi, helburua bera gatazkan jartzeko?

Barraskiloaren adibidea ekar dezagun. Barraskiloak bere eskolaren arkitektura gero eta espiral zabalagoak eginez eraikitzen du. Baina eraikuntza prozesuaren goi-mugan espirala

Mugikortasunaren politikaz aritzea, ekonomiaz aritzea da. Izan ere, kapitalismoaren funtsa produkzioa handitu eta produkzio-kostuak gutxiagotzea da, horretarako produkzio eta salmentako lekuen arteko deslokalizazioan oinarrituz. Eta deslokalizazioa posible da, distantziaren mugak gaindituak direlako mugikortasun sistemak ahalbidetzen duen bitartean.

kiribiltzen hasten da deshazkunde norabidean, espiral berri bat eraikitzeak 16 aldiz oskol handiagoa izatea suposatuko lukeelako, eta horrek barraskiloaren ongizatea ekarri beharrea, zama itzela bihurtuko litzatekeelako. Une horretatik aurrera espiralak hazten jarraituko balu, beraz, eraikuntzaren produktibitatea eskolaren dimentsio handien ondorioak arintzera bideratuak izango lirateke, eskolaren kalitatea hobetu beharrea. Espiralen handitzearen goi-mugara behin iritsita, gehiegizko hazkunderaren arazoak progresio geometrikoan biderkatzen dira, barraskiloaren gaitasun biologikoak progresio aritmetikoan hazten direlarik. Hona hemen ikasi beharreko jakinduria handiko esperientzia-iturria (2).

Garapen iraunkorraren gezurra

Garapen iraunkorraren *sloganak* ekologia modan jarri du eta politikarien ahotan entzutean, izutu egiten gara. Etimologikoki, garapen iraunkorra bi hitz kontrajarri dira azaldu dugun bezalaxe (garapenak limitea duelako), eta praktikan kontzeptu honen atzetik hazkunderaren babesa dago, zeinetan energia gehiago, petrolio gehiago, gas gehiago eta, noski, energia berriztagarri gehiago ekoizteko nahia dagoen, ingurumenari kalterik sorrarazi gabe. Horrela, *teknologiak posible egingo du hazkunderaren bukaera-data luzatzea*.

Ekologia industrial deritzon ekonomia honen arrakasta politika publikoen ekintzetan datza, diru-laguntza edo derrigortze-lan ikuskatzailearen ondorioz. Baina esan gabe doa, *ahaleginik gabe eta dirua irabazteari utzi gabe ezina dela sistema ekoizkorren eta naturaren arteko oreka lortzea*.

Gakoa naturaren baliabide biologiko berriztagarrien kudeaketa arduratsuan dago, hots, baliabide naturalen ustiatzeak baliabidearen berezko leheneratze-prozesua baimendu behar du. Hortaz naturaren bizi-lege honek, kontsumoari muga bat ezartzen dio, merkatuaren logikaren aurkan dagoena. Eta zeresanik ez, baliabide ez-berriztagarrien kudeaketaren gainean izan beharreko zuhurtziaz. Aldiz, ekonomia modernoa (hazkunde ekonomiko eta garapenarena) erregai fosilen erabilera masiboan oinarritzen da eta ez ditu naturaren berriztatze-zikloak errespetatzen.

Errealitate honetatik salbatuko gaituen ekonomia eredu aldizkakorik ba al da?

(1) BESSET, J.-P. (2005): "Comment ne plus être progressiste... sans devenir réactionnaire". Fayard, Paris: 258. or., cit. in LATOUCHE, 2008: 56-59

(2) ILLICH I. (2004): "Le Genre Vernaculaire, in Oeuvres Complètes". Fayard, Paris: 291-292 or., cit. in LATOUCHE, 2008: 59

